

Usurbilgo Udala

2018KO APIRILAREN 24EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Xuban Zubiria Elexpe

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko apirilaren 24ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

* 2018/02/27KO BILKURA.

Batzarkideek, 2018ko otsailaren 27ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

*** 2018/03/05EKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2018ko martxoaren 5eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO MARTXOAREN 12TIK APIRILAREN 13RA (2018/0222-2018/0343).

Alkatetzak 2018ko martxoaren 12tik apirilaren 13ra bitartean (2018/0222–2018/0343) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2018KO MARTXOAREN 27KO 2018/0294 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei 2018ko martxoaren 27ko 2018/0294 dekretuaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

4.- VAMB-EN AURKAKO ZIGOR ESPEDIENTEA, ZAKURRAREN ERASOA ETA ERAGINDAKO LESIOENGATIK.

ALKATEA: Pertsona baten aurkako zigor espedientea, zakurraren erasoa eta eragindako lesioengatik, honen berri Jonek emango du.

JONE URDANPILLETA: Gai hau ez da berria, urtarrilean ere plenotik pasa genuen, zakurren erasoa da, ardi batzuei egindako lesioengatik. Prozedura guztia martxan jarri zen, azkenean alegazioa tarteko eta komunikazioa tarteko, berandu iritsi zitzaion jakinarazpena. Horrek iraungitzat jotzen du prozedura baino ez preskribituta. Gaur hartzen dugun erabakiarekin, arau-hauste larria denez, araua hausten duenetik kontatzen hasita urtebetetera preskribatuko da eta orduan aztertzen ari garen kasuan arau-haustea ez dago preskribituta. Orduan, gaur onartuko dugun honekin berriro prozedura guztia martxan jarriko da, jakinarazpenak etab.

JOSUNE URKOLA: Beste urtebete?

IDAZKARIA: Ez. Gertaera pasa den momentutik urtebetetera preskribatzen da eta berriz prozedura martxan jarrita sei hilabetetako epea dago. Urtebete baino gutxiago bada sei hilabete horren barruan, preskribatuta geldituko litzake, beraz, urtebete barruan bukatu behar dugu prozedura.

JONE URDAMPILLETA: Ez dut aipatu batzordetik diktaminatuta datorrela.

ALKATEA: Hemen argibide edo gehiago gehitze aldera, gertatu dena da posta ziurtatuz bidali dela jakinarazpen hau, baina hartzaileak ez du jaso eta orduan erabaki dugu gure artean hemendik aurrera horrelako zigor espedienteen jakinarazpenak



Usurbilgo Udala

udaltzaingoaren bidez bidaliko direla, zeren bestela nahiz eta ziurtatuak izan nonbait ez da beti jasotzen eta hori ekiditeko hemendik aurrera hori egingo da.

Ez dakit galderarik baduzuen honi buruz.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.08/2017-0380

Aurrekariak

2017ko abuztuaren 11ko zinegotzi delegatuaren 2017/0844 dekretu bidez VAMB anderearen aurkako HZ.08/2017-0291 zigor jardunbideari hasiera eman zitzaion.

2017ko irailaren 13an jakinarazi zitzaion VAMB andereari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanez jardunbidearen izapidegilea urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera errefusatzeko, edota ongi iriztitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzan. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

Emandako epea amaituta, VAMB andereak ez zuen alegaziorik aurkeztu, ez eta frogaldia irekitzeko eskatu.

2017ko azaroaren 10ean ebazpen proposamena jakinarazi zitzaion VAMB andereari, jakinarazpena jasotzen zuen biharamunetik hasita 15 egunetako epea emanez espedientea aztertu eta hala balegokio, alegazioak aurkez zitzan.

2017ko abenduaren 12an (epeaz kanpo baina ebazpena eman aurreteik), VAMB andereak alegazio idatzia aurkeztu zuen.

2018ko urtarrilaren 30ean egindako Udalbatza Plenoak, alegazioa ezetsi eta zigorra ezarri zion VAMB andereari, ebazpena emateko epe barruan.

Jakinarazpenak egiten saiatuta, eta Correos bitartez egindako saiakerak emaitzarik lortu ez zutenaz, Udaltzainek jakinarazi zioten zigorra, 2018ko otsailaren 27an.

2018ko martxoaren 27an, VAMBek alegazioak aurkeztu ditu, aurretik aurkeztutako alegazioak berretsiz eta prozedura iraungita dagoela adieraziz.

Ikusirik

Espedienteari hasiera eman zion udaltzaingoaren txostenaren arabera, gertaera 2017ko uztailaren 12an jazo zela, eta arau hauste larritzat jotzen dela.

Zigor espedienteari 2017ko abuztuaren 11an emandako dekretu bidez eman zitzaioela hasiera.



Usurbilgo Udala

Kontutan harturik

Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak 43 artikuluan honako hau jasotzen du: “*Jardunbidea hasi eta hurrengo sei hilabeteko epean ebazpena jakinaraziko ez balitz, ebazpen hori iraungita geratuko litzateke 30/1992 Legeak ezartzen duen moduan*”. Beraz, dagokigun kasuan prozedura iraungita legoke, ebazpena epe barruan eman bada ere, jakinarazpena prozedura hasi eta 6 hilabeteak pasata egin zelako.

30/1992 legea, 39/2015 eta 40/2015 legeek ordezkatu dute. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 95. artikuluan honako hau jasotzen du:

“3. Prozedura iraungitze hutsak ez du besterik gabe ekarriko partikularren edo Administrazioaren akzioak preskribatzea, baina prozedura iraungiek ez dute geldiaraziko preskripzio-epearen zenbaketa.

Preskripzioa gertatu ez delako beste prozedura bat hasteko aukera ematen duten kasuetan, prozedura horri gehitu ahal izango zaizkio iraungitzea gertatu ezean edukia berdin mantenduko zuten egintza eta izapideak. Prozedura berrian, betiere, bete beharreko izapideak izango dira alegazioak, froga-proposamena eta interesdunari entzunaldia ematea”

Arau hauste larriak, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udala Ordenantzaren 35. artikulua araberaren arabera, arau-hauste egunetik kontatzen hasita urtebetera preskribatuko dute. Beraz, aztertzen ari garen kasuan, arau haustea ez dago preskribatuta.

Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 2018ko apirilaren 17an egindako bilkuran, aho batez (Jone Urdampilleta, Jose Mari Iribar, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echeverria) luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:


ERABAKIA

LEHENENGOA: VAMB anderearen aurkako HZ.08/2017-380 zigor jardunbidea iraungitzat ematea, 2/1998 Legeak eta 39/2015 legeak jasotakoaren baitan. Kontutan izan, udal ordenantzaren 35. artikulua araberaren arabera, arau-haustea ez dela preskribatu.

BIGARRENA: Interesatuari, zigor prozedura abian jarri zuen organoari eta prozedurako idazkari eta instruktoreari hartutako erabakia jakinaraztea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labakak, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- MPG-REN AURKAKO ZIGOR ESPEDIENTEA, ZAKUR ARRISKUTSUAREKIN ARAU HAUSTEA.

ALKATEA: Hurrengo puntua ere zigor espediente bati buruzkoa da eta hau ere zakur arriskutsuarekin arau-haustea.

JONE URDANPILLETA: Hau ere batzordean tratatu genuen. Zakur arriskutsu batek beste txakur bati erasotu zion, batez ere askatuta zebilkielako eta muturrekorik gabe. Arauak baldintzak jartzen dizkie txakur arriskutsuei, kontrolatuta eraman behar duelako jabeak. Kasu honetan txakurjabeak nolabait ere azalpenak eman ditu eta onartu du erasotu zuela eta behintzat bere ardurapean zegoen txakurrak egin zituela kalteak. Orduan alegazioa ez zaio kontutan hartu, beraz, ordenantzak eta administrazio-prozedurak dagokion zehaztapena ezarriz isun proposamena egiten da. Legeak aipatzen du isunaren %20ko murrizketa aplikatu daitekeela, jabeak bere erantzukizuna aitortu duenez eta arau haustea larria eta frogatuta gelditu denez, araututa dagoen isun kopuru tarte bat dago, 300 eurotik 1.500era. Arau-hauste larria eta erantzuleak kontutan hartuta jartzen zaio 300 euroko isuna, baina horri aplikatu daiteke murrizketa. Irizpenetan ikusten duzue murrizketa horren ondorioz, 240 euroko isuna jarriko zaiola. Horrek dauka errekursoan atzera egin beharko duela jabeak.

ALKATEA: Beste zerbaite gehitzeko edo galdetzeko?

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.08/2017-0590

MPG jaunaren aurkako zigor-jardunbidea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren xedapenen urraketagatik irekitako espediente zigortzailea aztertu ondoren, eta espedientea izapidetzen duen instruktoreak egindako ebazpen proposamena kontuan harturik, honako proposamena egiten dio Udalbatza plenoari:

IKUSIRIK

2018ko urtarrilaren 10eko zinegotzi delegatuaren 20178/0015 dekretu bidez MPG jaunaren aurkako HZ.08/2017-0590 zigor-jardunbideari hasiera eman zitzaion ondoko arrazoiengatik:

- Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2017ko abenduaren 6ko salaketan adierazten denaren arabera, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza, eta 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa, urratu dira. Aipatu idatzian 101/2004 dekretuko 4. artikuluari egiten zaio erreferentzia, zakurren edukitzailea edo hartaz baliatzen ari dena izango dela txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoaren erantzule



Usurbilgo Udala

gogoraraziz batetik, eta 11. Artikuluari dagokionez (arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeen edo edukitzaileen betebeharrak), *arriskutsuak izan daitezkeen txakur horiek euren tamaina eta arrazarentzako egokia den muturrekoarekin eraman behar dituzte; halaber, bi metro baino luzeagoa ez den eta luzatu ezinezkoa den kate edo uhal gogor bati loturik joan beharko dute; inolaz ere ez dira lotu gabe ibiliko*, eta ez betetze honek dakarren arau-haustea jasoz. Salaketan agertzen diren datuen arabera arau-hauste eguna 2017ko azaroaren 10a da eta arau-haustea berriz MPG jauna, txakurraren erabiltzailea, udaltzainburuak salaketarekin batera gehitu dituen dokumentazioan ikus daitezkeen datuen arabera (ikus espedienteko dokumentazioa).

- Udaltzainburuak egindako txostenean MPG jaunaren aurka dagokion zigor espedientea irekitzea proposatu du animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza, eta 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa 11. atala urratzeagatik, hau da, zakurrak kontrolatua ez eramateagatik eta beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta ez eramateagatik, aipatu arau-urratzearen sailkapena **larria** izanik.

2018ko urtarrilaren 18an jakinarazi zitzaion MPG jaunari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanaz jardunbidearen izapidegilea urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera errefusatzeko, edota ongi iritzitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzan. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

- 2018ko urtarrilaren 24an MPG jaunak alegazioak aurkeztu ditu. Honako hau dio, hitzez hitz: *“Hau adierazi nahi dut: nire errua erabat onartzen dudala zakur arriskutsua aske eta muturrekorik gabe eraman nuelako. Ados nago, beraz, jasango dudana zigor edo multarekin eta nire erruagatik sortutako ezbeharrak konpontzeko egin behar dudana guztia egiteko prest agertu naiz lehen unetik, eta prest jarraitzen dut. Beste jabearen zakurrak zituen zauri eta ezbeharren kezka eta kargu egiteko borondatea agertu nahi dut. Nire kezka handienetako bat zakurren ongizatean baitago. Beraz, nire errua onartuz, nire konpromiso osoa ematen dut honelako gertaerarik ez dadin berriz eman. Nire arduraren erantzule naizela eta gertaera honen ondorioz, benetan kontzientzia hartu dudala, ni erabiltzailea naizenez, araudiaren 4. eta 11. Artikuluetan agertzen diren betebeharrak betetzeko. Jasotako espedientearen nik eginiko adierazpenak agertzen ez direla ikusirik, nire bertsioa azalduko dut. Honekin, ez dut nire burua zuritu nahi, ez baitu inolaz ere justifikatzen. Baina egoera nola gertatu zen jakitea garrantzitsua iruditzen zait”*. Jarraian, ustezko arau-haustea bere bertsioa gehitzen dio aurkeztutako dokumentazioari.
- 2018ko otsailaren 1ean Udaltzainburuak aurkeztu alegazioa aztertu eta txostena eman du. Bertan espedientearekin jarraitu eta arau-haustea larritzat jotzeko eskaera luzatu du.

IKUSIRIK



Usurbilgo Udala

Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak honako hau jasotzen du bere 85. artikuluan:

*Zehapen-prozedura bat hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen badu, **dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango da prozedura.***

(...)

Zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatuko ditu, gutxienez % 20koak, proposatutako zehapenaren gainean, (...). Haietaz baliatzeko, bestalde, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharra dago.

MPG jaunak bere erantzukizuna aitortu duela, eta beraz, dagokion zehapena ezarriz Udalbatza Plenoari bideratzeko ebazpen proposamena egitea dagokiola irizten du instruktore honek.

KONTUAN HARTURIK

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza (GAO 2011-05-09) 16. artikuluan jasotzen dira bide publikoan txakurrak edukitzean bete beharreko baldintzak; 12. artikuluan jasotzen da bestalde animaliak eraso egiten badu nola jardun. Eta 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, *Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, animaliaaren edukitzailea izango da animaliak sortu ditzan kalte, galera eta arazoaren erantzulea.*

Aurreko xedapenak aintzat harturik eta espedientean aurkitzen den dokumentazioa eta frogak ikusi ondoren, burututako egintza arau-urratze **larria** dela, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikulua arabera.

Instruktore honen ustez, **frogatuta** geratu dela aipatutako **arau-urratzea eta erantzulea**, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 37. artikuluan xedatutako frogaldia ireki beharrik gabe, eta 39/2015 Legearen 85. artikuluan jasotakoaren arabera; izan ere Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2017ko abenduaren 6ko salaketa eta espedienteari gehitu dizkion dokumentuak nahiko frogak direla eta arau-hausleak aurkeztutako alegazioetan ekintza onartu duela.

Salaketa-egilearen funtzioen artean, 2010/1175 alkatetza dekretuaren bidez onartuak (2014/0274 alkatetza dekretu bidez bere horretan mantentzen direnak), behar izanaren eta zerbitzuaren arabera udaltzain funtzioak betetzea aurkitzen dela, besteak beste, eta hauen artean udal organoek jaulkitako arau, xedapen edo egintzen konplimentuaz arduratu ikuskatze, salaketa eta nahitaezko betearazpen ekintzen bidez: ordenantza, araudi eta udal akordioaren betetzearen zainketa. Zentzu berdinean aintzat hartu behar dela martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 53.1 artikulua, Segurtasun Indarrei buruzkoa, izan ere, Udaltzaingoak honako funtzioak bete beharko ditu: ordenantzei, bandoei eta gainontzeko udal xedapenei dagokienez, zaintza administratiboa bere eskumenaren eremuan. Azkenik, Usurbilgo Udaltzaingoaren araudiak (GAO 1990-04-12) 1. artikuluan xedatzen du Usurbilgo Udaltzaingoa osatzen dutenei Agintaritzaren



Usurbilgo Udala

Agente izaera aitortzen zaiela. Bestalde, 5. artikulua arabera udaltzainkideek, zerbitzutan dihardutela, Agintaritzaren Agentetzat aitortuko dute beren burua legeondorio guztietarako. Eta 3. artikulua baitan, besteak beste, Udaltzaingoari honako eginkizuna dagokio, udalak ematen dituen udal ordenantzak, alkategoaren bandoak, arategiak eta udal erabaki guztiak zehazki beteak izan daitezen galdatzea.

Salaketa-egileari Agintaritzaren Agente izaera aitortzen zaiola, ondorioz, bere salaketa frogan nahikoa dela ondorioztatzen dela salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko. Agintaritzaren Agente izaera duten funtzionarioek adierazitako gertakariari Legeak frogabalia esleitzen diela (39/2015 Legeko 77.5 artikulua). Udaltzainburuaren txostena administrazio-espeditan sartuta dagoela eta honek frogan gisa balio duela, are gehiago interesatuak aurkeztutako aurkako alegazioetan jasotakoa onartu duenean. Agintaritzaren Agentearen salaketari Legeak nahiko indar esleitzen diola salatutako gertakariak ziurtatzeko eta ondorioz isuna jartzeko ekintza zuzenbidezkotzat hartzen dela.

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) artikulua arau-urratze larrirentzat ezar daitezkeen **zehapenak** zehazten dituela:

30. artikulua. Zehapenak.

1. Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, animaliak babesteari buruzko arau-hausteak honako zenbateko hauek dagozkien isunekin zehatuko dira:

(...)

b) Arau-hauste larrietarako isuna: 300,52 €-tik 1.502,53 €-ra.

(...)

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 32. artikulua 1 atalak berriz **zehapenak ezartzeko mailaketa** zehazten dituela:

1. Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, honako inguruabar hauek kontuan izango dira:

a) Egindako arau-haustearen transzendentzia soziala eta sanitarioa, eta eragindako kaltea.

b) Legez kanpoko irabazi-asmoa agerikoa izatea eta arauhaustetik irabazitakoaren zenbatekoa.

c) Arauak hausten segitzea. Zehapen-espedita abiarazi aurreko bost urteko epean Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteren bat administrazio bidezko ebazpen irmoz zehapena ezarri bada, arauak hausten segitu dela ulertuko da.

d) Arau-haustearen gaitzespen-mailan eragin dezakeen beste edozein, bai aringarria bai astungarria. Horretarako, bereziki esanguratsua izango da animalien aurka erakutsitako bortxakeria haurren edota adimen-urrituen aurrean egin izana.



Usurbilgo Udala

Bestalde, kontuan izan behar dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak 85. Artikuluan jasotakoak; arau-hausleak bere erantzukizuna du, eta prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatu beharko ditu, %20koak, proposatutako zehapenaren gainean, beti ere zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharko duelarik arau-hausleak.

Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 2018ko apirilaren 17an egindako bilkuran, aho batez (Jone Urdanpilleta, Jose Mari Iribar, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echeverria) luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: MPG jaunak Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikuluan xedatutako arau-urratze larria burutu du, hau da, kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea, espedientean aurkitzen den dokumentazio eta frogen baitan.

BIGARRENA: MPG jauna da arau-haustearen erantzulea, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 6. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.


HIRUGARRENA: MPG jaunari, burututako arau-hauste larria dela eta, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) atalean aurreikusitako zehapena jartzea, hain zuzen ere, 300,52 euroko isuna ezartzea ordenantza bereko 32. artikuluko 1. atalean xedatutako irizpideak eta espedienteko dokumentazioa kontuan hartuta, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 7. eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

LAUGARRENA: Zehapen horren gainean, 39/2015 legeak bere 85.artikuluan aurreikusitako %20ko murriztapena ezartzea; beraz, ordaindu beharreko isuna 240,42.-€ izango dira, beti ere zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharko duelarik arau-hausleak.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labakak, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

6.- 2019 URTERAKO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.

ALKATEA: Hau ere alkatearen proposamen gisa dator, beraz, lehenbizi berretsi egin behar behar dugu puntu tratatzea. Hau da 2019. urterako herriko jaieguna izendatzea.

[Gai hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek puntu hau tratatzea berretsi dute aho batez.]

ALKATEA: Mamiari helduz, Jaurlaritzatik etorritako eskaera bat da. Gipuzkoako ez ezik Komunitate Autonomoko udal guztiei egindako eskaera da. Bertan eskatzen zaigu herriko jai egun bat izendatzea, berez egutegi ofizial horretan inkorporatzeko gure herrian. Orduan, kasu honetan egiten den proposamena da, ohikoa eta besteetan ere hala egin izan dugu, Santixabel eguna aukeratzea, uztailaren 2a, datorren urtean asteartez tokatzen dena. Eta horixe da egiten dugun proposamena. Beraz, besterik gabe bozkatu egingo dugu.

Batzarkideek, alkatearen proposamenarekin bat egin dute aho batez, honela dio erabakiak:

“Esp.zk.: ID.02/2018-0176

Apirilaren 16ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean apirilaren 10eko 51/2018 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2019. urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena, argitaratu da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2019. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen da.

Aipatu dekretuaren bigarren puntuan xedatzen da tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango direla.

Horietako bat, uztailaren 31a izango da, Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politikarako Lurralde Ordezkaritzatik jasotako oharrean udal honi jakinarazi baitzaio 2019rako San Inazio eguna, uztailaren 31a, Gipuzkoa osoko jaieguna izatea aurreikusita dagoela.

Hau guztia horrela, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: 2019ko Santixabel eguna, uztailaren 2a (asteartea) herriko jaieguna izatea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzari ematea.”

Bozketa honela izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labakak, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- GARBITANIA ZERO ZABOR SM-REN OBJETU SOZIALA HANDITU ETA HELBIDE SOZIALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

ALKATEA: Hurrengo puntua Garbitania Zero Zabor elkartearen objektu soziala handitu eta helbide soziala aldatzeko proposamena, izenburuak berak dio zein den proposamen honen helburua. Hau bai, hau Antolakuntza batzordetik dator. Bi dira proposatzen diren aldaketak, nolabait Garbitaniaren estatutuei eragiten dietenak.

Lehenbizikoa da objektu soziala edo funtzioa aldatzea. Honen zergatia da Hernanik ja erabakita daukala kale garbiketaren zerbitzua Garbitania enpresaren bidez egingo duela. Beraz, Hernaniren asmo horri tokia egiteko Garbitaniak nahitaez bere objektu soziala eguneratu beharra dauka eta lehendik daukan helburu edo betekizunei gehitu behar dio kaleen, bide publikoen eta lorategien garbiketa. Beraz, hori da lehendabiziko puntuan proposatzen dena, estatutuen 2. artikuluari helburu hori edo eginkizun hori gehitzea.

Bigarren proposamena da Garbitaniaren egoitza, helbide soziala aldatzea. Kasu honetan, ja Hernanin kokatuta dago Garbitania nagusiki, Hernaniko Lastaola poligonoan hor dago ja bere administrazioaren gunea eta, baita ere, gaur egunean kamioiak eta han egoten dira. Beraz, kasu honetan da eguneratzea, errealitateari egokitzea Garbitaniaren egoitza.


Horiexek dira bi proposamenak.

Galderaren bat edo zerbait jakin nahi baduzue.

JOSUNE URKOLA: Gure proposamena da puntu hau mahai gainean uztea. Badakit batzordetik pasa zela, baina orduan ez neukan informazio gehiegirik, ez nuen tratatzeko denborarik izan. Aztertzen jardun gara eta hemen dagoen informazioa ez zaigu nahikoa iruditzen bozkatzeko, ez aldeko ez kontrako.

Batzordean ere aipatu nuen hemen ez da inondik inora ere Astigarraga aipatzen, hasiera-hasierako sortu zeneko historia bakarrik egiten da eta gero ja mozten da eta gero hasten da orain egin nahi den aldaketa horrekin.

Garbitaniak iruditzen zaigu geroztik ere erabakiak hartu dituela, bat baino gehiago eta hemen ez direla aipatzen. Aipatzen dira Garbitaniak egin dituen bileratan txosten batzuk, baina ez ditugu ikusi txosten horiek, ez dakigu ze eragin izango lukeen erabaki



Usurbilgo Udala

honek Garbitanian, ezta Udalean ere. Eta bestalde, baita ere esan, egin nahi den aldaketan edo gehitu nahi zaion erabaki honekin iruditzen zaigu gaur egun kale garbiketa Udalaren eskumena dela eta hau Garbitaniari ematen bazaio eskumenak hirugarren baten...

Informazio faltan mahai gainean uztea eskatuko genuke.

ALKATEA: Batetik, egiten ditugunean Antolakuntza batzordeak eta tarte bat uzten dugunean Antolakuntza batzordetik Plenora bitartean hain justu ere hori da helburua, hau da, egon litezkeen informazio beharrak asetzea. Oker ez banago Antolakuntza batzordea egin genuen orain dela hamar egun, izan zen 18an, sei egun pasa dira harrezkero. Gainera, Antolakuntza batzordeak antolatu genituen hain zuzen ere plenora ez ekartzeko gaiak landu gabe, hau da, tarte bat utzi behar zenuten informazio guztia eskuratzeko, kontrastatzeko, etab. Iruditzen zait informazio beharra bazegoen denbora egon dela horretarako.

Bestetik, Astigarraga aipatu zen Antolakuntza batzordean eta esan zen garbi, momentu honetan Astigarraga badela Garbitaniaren kide, oraindik ez delako gauzatu Astigarragak Garbitania uztea eta, beraz, erabaki hau hartzen denean Garbitaniaren batzarrean Astigarragako ordezkariak egongo da, baldin eta noski beren borondatez joaten badira, abisatuta daude eta jakinarazi zaie erabaki hau hartuko dela. Erabakian hartuko dute parte kide diren neurrian, Usurbil eta Hernani diren bezalaxe. Beraz, ez dago inongo eraginik edo inongo bazterketarik Astigarragarekiko.

Zer eragin izango duen erabaki honek Usurbilen? Garbi dago Garbitaniak momentu honetan funtzionatzen duela batez ere hondakin bilketan, batez ere ez, hondakin bilketan bakarrik funtzionatzen du. Hemendik aurrera izango du beste zeregin bat Hernanin, kale garbiketan, baina garbi dago baita ere urteroko kontuen eta gastuen eta abarren azterketan Hernaniko kale garbiketarako izango duela bere atal propioa eta hori %100 finantzatu edo dirua jarriko duela Hernanik. Hau da, Hernanik egingo dio aurre kale garbiketari Hernaniri emandako zerbitzu bat izango delako eta, beraz, horrek ez du inongo eraginik izango Usurbilek jasotzen duen zerbitzuetan eta, noski, horren ordainetan Usurbilek ordaintzen duen kopuruan. Beraz, hori garbi dago, hala izan behar du eta hala izango da.

Bukatzeko, esan duzuna azkenean, kale garbiketa noski dela udalaren eskumena, udalaren eskumena da eta udalaren eskumena izaten jarraituko du. Kontua da eskumen hori nola gauzatzen den, nola exekutatu den. Udal batzuk, Usurbilek erabakita daukagu eta hala daukagu sistema muntatuta, geure langile propioekin, bere zerbitzu propioekin egitea kale garbiketa, beste batzuek egiten dutena da hori azpikontratatu eta enpresa pribatu baten esku utzi eta, kasu honetan, Hernanik esango genuke hirugarren bide bat aukeratu duela eta da, azkenean, enpresa publiko baten eskutik egitea. Hau da, publikatzen du zerbitzua, lehen enpresa pribatu batek egiten zuena, orain enpresa publiko baten eskutik egingo luke. Hori da aldaketa, baina betiere erabaki hori erabaki soberanoa da, Udalak egindakoa eta Udalak orain hartzen duen bezala erabaki hori hurrengoan bestelako erabaki bat hartu dezake berdin berdin, Udalaren eskumena delako ongi diozun bezala kale garbiketa. Beraz, ez dut ikusten



Usurbilgo Udala

arrazoirik puntu hau suspentsoan uzteko, iruditzen zait baldintza guztiak bete direla puntu hau gaur hemen tratatu eta erabaki ahal izateko.

ALAITZ AIZPURUA: Nik, Josune, holakoetan gomendatuko nizuekeena da, noski, Garbitania oker ez baldin banago, hamar urte edo bederatzi urte badira sortu dela eta bederatzi urte hauetan erabaki asko hartu dira, noski, logikoa den bezala. Baina ez dut uste inongo txostenetan edo erabakitan hartzen denik erakunde horrek aurretik hartu dituen erabaki guztiak, daude batzuk aipatuta interesgarriak iruditzen direlako edo akaso informazio gehitu bat ematen diolako hartu beharreko zerei. Eta, noski, txostenei aipamena egiten zaie eta txosten guzti horiek espedientean daude eta espedienteak eskura daude, eta holakoetan edo espedientera jo edo dagokion teknikariarengana joan eta eskuratu txostenak informazioaren aldetik. Ez dut uste dagoenik inongo arazorik edo intentziorik informazioa gordetzeko edo ez emateko. Askotan egiten dira aipamenak baimenetan, erabaki askotan egiten dira, erabaki bakoitzean ekarri beharko bagenuke espediente guztia ez litzateke...

JOSUNE URKOLA: Espediente guztia ez, Alaitz, baina nik uste dut txosten hau hartu horrela eta errealitatek oso urrun dagoela. Ematen du hemen Oiartzun, Hernani eta Usurbil bakarrik daudela eta justu Oiartzun ja ez dago, eta dago Astigarraga, eta ez da aipamenik ere egiten. Iruditzen zait, niri pertsonalki gainera, inportanteena hori dela. Oso denbora epe motzerako gainera egongo da Astigarraga, ateratzekotan zuk Xabier aipatu zenuen, ez? Seguraski aterako dela.

ALKATEA: Bai, Astigarragak ez du oraindik eskaera formalki egin, baina momentu honetan Garbitaniak ez dio zerbitzurik ematen Astigarragari eta, beraz, modu informal batean bada ere, elkarrizketen bidez eta badakigu asmo hori baduela gaur egunean Astigarragako Udalak. Ikusi behar da baita ere erabakien testuingurua eta muga zein den. Hau da, gai hau ekarri bada Udaltzara da estatutuen aldaketa bat egin behar delako eta estatutuen aldaketa egite ezkerro Garbitanian, beharrezkoa da erabaki hori Udaltzek berrestea, beraz, horregatik ekarri da gai hau. Noski, Garbitaniak erabaki asko hartzen ditu eta erabaki horien berri ez da ekartzen hona, pleno guztietara, hori ebidentea da.

Esan behar nuen, Astigarraga egon edo ez, azkenean, Garbitaniaren helbide sozialari eta objektu sozialari dagokionean, Astigarragaren presentzia ez da hain determinantea. Horrek ez dio, nire ustez, Astigarragaren presentziak aldaketa bat edo aspektu inportante bat gehitzen erabaki horri. Hemen erabakitzen duguna da zein den gaur egun Garbitaniaren helbide soziala eta zein den Garbitaniaren objektu soziala. Objektu soziala pasatzen da izatetik hondakin bilketa soila, hondakin bilketa eta kale garbiketa, besterik ez dugu erabakitzen. Hau horrela estatutuan jasotzearen ondoren, besterik da nola egingo den Hernaniko kale garbiketa, Hernaniko kale garbiketarako Hernaniko Udalarari zer kostu eta abar ekarriko dizkion, hori noski Hernaniko udalak erabaki beharko du, eta horretarako egin zen martxoan Hernaniko Udalean udalbatza eta bertan zeuden alderdi guztien artean erabaki zuten erabaki zutena. Hori ez dagokio Usurbilgo Udalarari, bai dagokiola estatutuen aldaketa hori, nolabait ontzat ematea. Bi



Usurbilgo Udala

puntu horiek bakarrik dira. Nik uste dut hor Astigarragak duen eragina ez dela garrantzitsua.

ALAITZ AIZPURUA: Hartu beharreko erabakietan nik uste dut Usurbil eta Hernani aipatzen direla nolabait ere objektu soziala Usurbildik Hernanira aldatzen delako eta Hernaniko kale garbiketak afektatzen duelako aldaketa horren arrazoia, ez kide direlako edo ez direlako kide, afektatu zuzenak direlako. Kasu honetan Astigarragari erabaki honek ez dio afektatzen.

Bestetik, nik uste dut, Xabierrek ondo esplikatu duen bezala, eskumenak eta eskumen horiek zeinek eta nola garatzen dituen nahastu egin direla. Usurbilek urte askotan bere langile propioekin ematen du, gaur egun ere, kale garbiketa eta Hernanik publikazio bide hori egin du eta oso herri gutxi gara baliabide propioez edo publikoez ematen dugunok zerbitzu hori, azkenean publikatzea eta 100 lanpostu publiko horien defentsa egitea. Ondo egongo litzateke gainontzeko herri askok ere, gure ustez noski, bide hori jorratuko balukete.

JOSUNE URKOLA: Garbitania sozietate mugatua da, limitatua da, kapital publikoa edukiko du baina entitate pribatua da.

ALAITZ AIZPURUA: Bai, baina ez da enpresa pribatu bat. Berdina iruditzen bazaizu, ondo goaz.

JOSUNE URKOLA: Ez, ez dira berdinak, baina antzekoak.

ALAITZ AIZPURUA: Hor iritzi desberdinak dauzkagu erabat.

ALKATEA: Besterik?

FERMIN ORUE-ECHEVARRIA: Bi gauza eskatzen dira bakarrik, objektu soziala aldatzea edo handitzea eta helbidea aldatzea, orduan ez da alde handirik egiten, bakarrik Usurbilen egon beharrean Hernanin egongo dela. Abstenitu egingo naiz.

ALKATEA: Besterik ez bada bozkatzera pasako gara.

IDAZKARIA: Begira nenbilen, justu aurrekoetan ez dugu egin baina mahai gainean uzteko eskatuta, bozkatu egin behar da mahai gainean uztea edo ez, gehiengo soilez onartuko balitz mahai gainean uztea, mahai gainean utziko litzateke, bestela bozkatzen da normal eta listo.



Usurbilgo Udala

ALKATEA: Josune, mahai gainean uztea eskatu duzu, ezta?

JOSUNE URKOLA: Bai.

IDAZKARIA: Bozkatu behar da proposamena, gehiengo soilez onartuko balitz mahai gainean uztea, hurrengo plenorako izango litzake, eta ez balitz onartuko jarraitzen du bozkak aurrera normal.

ALKATEA: Orduan lehenbiziko bozkatzen duguna da ea proposamen hau mahai gainean utziko dugun, beraz, mahai gainean uztearen alde.

[EAJk puntu hau mahai gainean uztea proposatu duenez, bozketara eraman da proposamena:

Mahai gainean uztearen alde: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Aurka: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labakak, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri

Beraz, mahai gainean ez uztea erabaki da gehiengoz.]

ALKATEA: Orain ja bozkatzen dugu proposamena bera.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: ID.12/2018-0167

Ikusirik

Usurbilgo Udalbatza Osoak, 2010eko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, beste batzuen artean honako erabakia onartu zuen, hitzez hitz:

“1.- Hernani eta Oiartzungo udalekin batera merkataritza sozietate bat eratzea eta aipatutako memorian jasotzen diren Estatutuak onartzea. Hona hemen entitate horren ezaugarriak:



Usurbilgo Udala

1.1.- *Erantzukizun mugatuko sozietatea izango da eta, aplikatu beharreko beste xedapenen artean, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen 1995eko martxoaren 23ko Legeari lotua egongo da, eta baita etorkizunean hura osatzeko edo aldatzeko onartzen den araudiari ere.*

1.2.- *Sozietatearen izena hau izango da GARBITANIA ZERO ZABOR, SOZIETATE MUGATUA.*

1.3.- *Sozietatearen helburua hau izango da: hiri hondakinen eta asimilagarrien gaikako bilketa, kudeaketa, ustiaketa eta tratamendua, hala badagokio, gai horri buruz indarrean dauden lege xedapenak eta Europakoak betez, eta hondakinak gutxitzeko eta ahalik eta birziklatze maila altuenak lortzeko eta, hartara, arlo honetan indarrean dauden xedapenek diotena hobeto lortzeko helburua duten bilketa, kudeaketa eta tratamendu sistema bereziak hobetzeko moduak eta neurriak hedatzea.*

1.4.- *Sozietatearen kapital soziala bostehun mila euroz osatua egongo da (500.000 €) eta bazkide bakoitzari dagozkion baltzu partaidetzak hauek izango dira:*

<i>Hernaniko Udala:</i>	<i>%49</i>
<i>Oiartzungo Udala:</i>	<i>%33</i>
<i>Usurbilgo Udala:</i>	<i>%18</i>

2.- *Entitate horren kapital sozialari 90.000 €-ko ekarpena egitea,”*

Aipaturiko erabakia betez, ondorengo astetan Garbitania Zero Zabor, S.M, Elkarteak sortu eta martxan jarri zuten Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo udalek.

Geroztik, sozietateak bere erabakiak hartu izan ditu ezarri zitzaizkion helburuak betetze aldera; Idazkariak 2018ko apirilaren 12an emandako txostenean xehatzen dituenak hain zuzen ere.

Orain berriz, Garbitania Zero Zabor SM.ren administrazio kontseiluak, 2018ko martxoaren 27an egindako bilkuran, onartutakoari jarraiki, honako proposamena luzatu du:

“2.- Objetu soziala kale-garbiketa jarduerarekin handitzeko eta arrazoi soziala Usurbiletik Hernanira aldatzeko eskaera Udaletako Osoko Bilkuran onartzeko proposamena aztertu eta hala badagokio, bideratzea.

Gerentziaren proposamena (artxiboa erantsita) aztertu da eta zera adostu da aho batez:

Lehenengoa – Garbitania osatzen duten udaletako ordezkariak bakoitzak bere Udalera proposamena eramatea, Udal bakoitzean dagozkion izapideak bete (Osoko Bilkuran onarpena hala badagokio) eta 2018ko maiatzaren 3an egingo



Usurbilgo Udala

den Batzar Orokorraren gai zerrendan sartzea, aldaketak eskrituran jaso eta legezatu aurretik azken onarpena emateko”

Proposatutako aldaketa honako hau da:

A) Recogida selectiva de residuos urbanos y asimilables, gestión, aprovechamiento y tratamiento en su caso, dando cumplimiento a las tres disposiciones legales y europeas sobre la materia.

B) El asesoramiento de todo tipo en estas materias y la propagación de los medios y formas de implementación de los específicos sistemas de recogida, gestión y tratamiento que permitan reducir al máximo la generación de residuos, alcanzar las mayores cotas posibles de reciclaje y se logre el mejor cumplimiento de las determinaciones de las disposiciones vigentes en la materia.

GEHITU BEHARREKOA:

C) Servicios de limpieza de calles, vías públicas y jardines.

Bestalde, 2018ko aurrekontuaren %79a Hernaniri dagokio, eta 21%a Usurbil-i; enpresaren helbide soziala Usurbilen dago.

Kontuan harturik

Hernaniko Udala 2018ko martxoaren 7ko Osoko Bilkuran horrela erabakita, Garbitania Zero Zabor SM-k Hernaniko kale garbiketa zerbitzua emango duela 2018ko maiatzaren 9tik aurrera. Horretarako, gaur egun enpresak duen objektu soziala handitzea beharrezkoa da.

Helbide sozialari dagokionez, estatutuetako 4. artikulua helbidea Usurbilgo Udaletxean egongo dela zehazten du. Hala ere, Sozietateen legediaren arabera, helbidea jarduera handiena ematen den lekuan egotea aurreikusten du legeak.

Aldaketa proposamena Garbitaniako Batzar Nagusira bideratu aurretik, Sozietatea osatzen duten Udal bakoitzak proposamena onartuko du, hala badagokio estatutu aldaketa onartu ahal izateko.

Antolakuntza Batzordeak, 2018ko apirilaren 18ko bilkuran, gehiengoz (aldeko botoak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta. Abstentzioa: Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria) luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Garbitania Zero Zabor SM-ren proposamena aintzat hartu eta sozietatearen Batzar Nagusira eskaera bideratu ahal izateko xede aldaketa testua



Usurbilgo Udala

onartzea, hau da, “C) *Servicios de limpieza de calles, vías públicas y jardines.*” gehitzea Estatutuetoako 2. artikuluari.

BIGARRENA: Garbitania Zero Zabor SMren proposamena aintzat hartu eta sozietatearen helbide soziala lekuz aldatzea, Sozietate Legean jasotakoaren arabera, helbide berria honako hau izatea ontzat emanez: Lastaola Poligonoa 3. Gunea, A12 eraikina (Ereñotzu Auzoa). 20120 Hernani

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Garbitania Zero Zabor SM-ri jakinaraztea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labakak, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- MOZIOA: IÑAKI ERRAZKIN ETA AINHOA INTXAURRANDIETAREN EPAIKETA.

[Alaitz Aizpuruak mozioa irakurri du.]

ALKATEA: Hauxe mozioa, zerbait esateko?

JOSUNE URKOLA: Bai, nik irakurriko dut testu bat.

Guk, mozio honen aurrean, bi plano bereizten ditugu, bata legala eta bestea zilegitasun demokratikoarena.

Legealdetik, naiz eta gure ustez legea urratu zen, eta iritzi horretaz ohartuak izan ziren garai hartan GHKko arduradunak, epaiketak argituko du egin zena legala izan zen ala ez. Beraz, epaiak erabakiko du gertatutakoaren legaltasuna, eta horren aurrean bakoitzak hartu beharko ditu bere ardurak.

Bainan bada, mozio honetan beste plano bat, hartutako erabakien zilegitasun demokratikoarena. Eta hemen, berriz ere, interes partidista eta elektoraletan begiak jarritako azterketa edo adierazpena azaltzen da.

Nahiz eta askotan egiarekin bat ez datorren zerbait errepikatu, errealitatea alda ezina da. 2011ko hauteskundeen emaitzek, Batzar Nagusietako ordezkartzaren gehiengoaren kolorea, PIGRUGek (Plan integral de gestión de residuos urbanos de Gipuzkoa) aurrikusten zuen helburuekin bat egiten zuenarena marraztu zuen, bai



Usurbilgo Udala

batzarkideen kopuruan, eta baita ere hauek izan zuten bozken kopuruan, hau da, Batzar Nagusietako emaitzetan % 60 a PIGRUGen aldekoa izan zen.

Hondakinen tratamenduaren planifikazioa, sistemaren itxiera eta guzti horretarako ze azpiegitura eraiki behar diren erabakitzeko eskumena Batzar Nagusia da, eta PIGRUG da guzti hori jorratzen duen plana, eta hori aldatzeko, Batzar Nagusietan izan behar da gehiengoa.

Hori gero kudeatzeko ahalmena, udalek dute eta PIGRUGen helburuak aurrera ateratzeko, udalak elkartu ziren, GHKn, konsortzio bat sortuz. Bertan, Ezker Abertzaleak zuen gehiengoa, Txingudi nahita kanpoan utziz. Zeren, Gipuzkoako udal hauteskundeetan, eman zuen emaitza, udal mailan, eta mankomunitateetan, gehiengoa ere PIGRUGen aldekoa zen. GHKn ez, artifiziarki Foru Alundiak duelako ordezkari tarte bat, eta Txingudi kanpo utzi zelako. Bainan, balorizazio planta egin ala ez Batzar Nagusien ahalmena zen.

Beraz, argi dago, hartu zituzten erabakiak zilegitasun demokratikorik gabe hartu zituztela. Ezker abertzaleak bere proiektua inposatu nahi izan zion Gipuzkoako gizarteari, zeren ez zuen zilegitasun demokratikorik, eta gure ustez, ezta helduleku legalik ere.

EAJk, Gipuzkoan askotan irabazi ditu hauteskundeak, gauza bat da hauteskundeak irabaztea, eta beste bat gehiengo nahikoa izatea erabakiak hartzeko. EAJk, beti lortu izan ditu adostasunak, herri hau aurrera ateratzeko, bainan ez du bere egitasmorik inoiz inposatu.

Beraz, gu ez gatoz bat mozio honetan eskatzen denarekin, eta aurka bozkatuko dugu.

ALKATEA: Fermin, zuk zerbait esan nahi duzu?

FERMIN ORUE-ECHEVARRIA: Bai, informazioa bilatzen jardun naiz eta zerbait aurkitu dut, beste informazioa eskatu egin dut eta eman didate, baita ere.

Lehenengo gauza, lehenengo paragrafoan azaltzen da, 5. lerroan, "kopuru horren barruan kalkulatu dute enpresa-eraikitzaileei ordaindu zitzaizkien kalte-ordainak, eta, EAJk eta PSEk bankuekin sinatutako *swap*-en ondorioz, orain arte ordaindu den dirutza". PSEk ez zuen sinatu *swap*, bakarrik hori argitzeko.

Bildu hasten denean legealdia 2011n, administrazio kontseiluak geldiarazten du proiektua. Balorazio energetikoen instalazioaren proiektua geldiarazten du eta eskaintako plangintza baita ere geldituta geratzen da.

Ez du betetzen indarrean zegoen araudia edo PIGRUG. Lehenik proiektua bertan behera uzten du eta gero baliorik gabe uzten du enpresarekin zuen kontratua, eta ez du kontuan hartzen Batzar Nagusiek egiten dizkion abisuak eta ez du errespetatzen Foru Araudia. Azpiegitarik gabe gelditzen da lurraldea, "fracción resto" esaten dena



Usurbilgo Udala

tratatzeko ez dago azpiegitararik eta, gainera, eman behar zaio konpentsazio bat enpresari, 41 milioi euroko konpentsazioa. Gero, zerbitzua garestitu egiten da, swap horiek ordaindu egin behar dira, Europako bankuen finantziario bat galtzen da, baita ere. Eta ez dago alternatiba eraikitzen “fracción resto” hori tratatzeko.

Geldiarazte hori errekurritua izan zen bi mankomunitatek, Debabarrena eta San Marcosek errekurritu zuten. Donostiako administrazioarekiko auzitegi batek esaten du baliorik gabeko akordioa dela. Eta, gainera, baieztatzen du egon daitekeela botere desbideraketa bat hartutako erabakietan. Sententzia hori errekurritu zuen Bilduk eta joan zen EAEko Auzitegi Nagusira eta Auzitegi horrek eman zion arrazoia Donostiako epaitegiari.

2012ko GHKko kontuen auditoria egin ondoren, Euskal Kontu Auzitegiaren txostenean agertzen zen posiblea zela irregulartasunak egotea. Txosten hori ezagutu den unean fiskalak hasiera eman dio prozedurari dirua berreskuratzeko. Batzar Nagusiek eskatu zioten Aldundiari GHKko erantzukizunak eskatzeko dirua aurkitzeko. Erreklamazioa aurkeztu da eta epaiketa orain ikusi da. Epaiketa horretan bi sozialistek ere agertu behar izan zuten, hauek GHKko karguetatik atera ziren 2012an, dimisioa aurkeztu zuten. GHKko zerbitzu teknikoek egindako azterketa guztiek adierazi zuten ez zela erraustegia gelditu behar. Era berean, bakoitzari ondare pertsonalarengatik erabaki horrek izan zezakeen arriskua jakinarazi zioten GHKko hainbat txosten tekniko, juridiko eta finantzarioen aurka zihoazelako.

Azpiegitura hori gelditu zen, ez zuten behar zuten laguntza Batzar Nagusietan, ez zioten kasurik egin Batzar Nagusietako akordio horri eta aurrera jo zuten beraiek egin nahi zuten arte.

Batzar Nagusietan akordioak ez badira errespetatzen, hori ez zait demokratikoa iruditzen. Orduan, kontra bozkatuko dut.

ALKATEA: Saiatuko naiz bioi batera erantzuten, izan ere, nahiz eta azalpenak desberdinak izan diren iruditzen zait muinean dagoen arazoa edo ikuspegia antzekoa izan daitekeela bion aldetik, alegia, zilegitasun demokratikoa deitu duzu zuk, ea erabaki hori demokratikoa izan zen. Horretara mugatuko naiz, zuk egin duzun gertakarien sekuentzia hori egia esanda nik ez dut dokumentazio hori ekarri, baina nik ere eskuratu nezakeen oso bestelako ikuspegi bat gertakari horiek nola joan diren eta zer gertatu zen kasu bakoitzean eta abar. Orduan, hemen xehetasun hori ez daukadanez, ez naiz sartuko puntuz-puntu zuk esandakoa rebatitzen. Baina esandakoa, muinean dagoen koska dela zenbateraino zen zilegi, zenbateraino zen demokratikoa GHKko agintari eta Diputazioko agintariek hartu zuten erabakia.

Antolakuntza batzordean esan nizuen, Batzar Nagusietan PIGRUG onartu zen, hori Foru Araua da eta horrek markatzen du plan integral bat Gipuzkoan hondakinak kudeatzeko. Gaztelaniaz da *Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa*. Plan horretan aurreikusten da ze behar izango dituen Gipuzkoak hondakinen tratamenduari dagokionez eta ze azpiegitura beharko lituzkeen tratamendu hori egiteko. Hori da, esan dezagun marko bat, hori da plan orokor bat Gipuzkoak



Usurbilgo Udala

garatu beharrekoa, ez ditu inondik ere zehazten azpiegituren xehetasunak, ez ditu inondik ere zehazten azpiegitura horien tamainak, ez ditu inondik ere zehazten azpiegitura horien kokapenak eta horrelako gauzak. Egiten du nolabait aurreikusi ze azpiegitura beharko liratekeen plan hori edo Gipuzkoako hondakinak tratatzeko. Eta horren baitan gero, zuk ere esan duzu, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa sortu zen. Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak egiten du nolabait garatu plan hori. Plan horren garapena noiz eta nolatan egin behar den Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren eskumena da eta ez Batzar Nagusia. Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak, PNVren eskuetan zegoenean, erabaki zuen kontratu bat martxan jartzea errauste planta bat egiteko Zubietan. Hori izan zen GHK hartutako erabaki bat, hain zuzen ere, kontratuaren sinatzailea izan zen GHK eta kontratu horren gauzatzailea GHK izan zen. Beraz, logikoa den bezala, GHK baldin bada nor Kontratu hori egiteko GHK era berean nor da kontratu hori atzera botatzeko. GHKren eskumena delako hori egitea.

Orain, hurrengo galdera, beraz, eskumenen gaian GHK da kontratua egin zuena eta GHK izan zen kontratu hori atzera bota zuena. Kontratu hori atzera botatzeak badauka tokirik PIGRUG egonda? Nire erantzuna da, bai, eta eskerrak gainera atzera bota zela. Zergatik? Bere garaian diseinatu zen errauste planta hori gaindimentsionatuta zegoelako, zegoelako aurreikusita hondakin kopuru batzuk tratatzeko eta ja Iñaki, Ainhoa eta hauek zeudenerako hondakin kopuru hori nabarmen jaitsita zegoen. Beraz, eskerrak ez zen orduan kontratu hori aurrera eraman bestela eraikiko zen errauste planta bat Gipuzkoako beharretara egokitzen ez dena, baizik eta askoz handiagoa. Esan dezakegu, beraz, eskerrak orduko GHKko Iñaki eta Ainhoa eta inguruko guztiek erabaki zuten arrazoiz eta zentzuz kontratu hori etetea. Zein zen arazoa? Arazoa zen swap-ak izenpetu zirela eta swap horiek direla produktu finantzario batzuk, non behartzen zaituzten ordaintzera bankuei eraikin hori egin ala ez. Eraikin hori egin ala ez, behartzen dute administrazio publikoa bankuei diru hori ordaintzera eta hori da interes publikoaren kaltetan jokatzeko nabarmenki, interes publikoaren kaltetan eta interes pribatuaren mesedetan. Baina xehetasun batzuk bai badiudala gogoan, noiz izenpetu ziren swap horiek? Swap horiek izenpetu ziren Bilduk ordurako Gipuzkoako hauteskundeetan gehiengoa lortu zuenean. Eta hori izan zen, hain zuzen ere, egin zen trikimailu bat hipotekatzeko ondoren zetozen Bilduko agintariak eta esku lotuta edukitzeko errauste plantaren negozio hori atzeratu ez zedin. Egutegiari begiratu besterik ez dago, maiatzean egin ziren hauteskunde foralak eta swap horiek izenpetu ziren urte hartan baino beranduago. Hori bai dela zilegitasun demokratiko eza, hori bai dela gipuzkoarroi iruzur eta tranpa egitea. Esandakoa, hemen ez zen Batzar Nagusien erabakia inondik ere atzera bota, PIGRUGak indarrean jarraitu zezakeen, gertatzen dena da erabaki zela orduko errauste planta egiteko kontratu hori ez zela egokia, gipuzkoarren interesen aurkakoa zela eta, beraz, hori berrikusi beharra zegoela. Horixe erabaki zen, hori berrikusi beharra zegoela.

PIGRUGak azpiegitura asko planteatzen zituen. Eta zer gertatzen da, errauste-planta al zen eraiki beharreko azpiegitura bakarra? Beste azpiegitura asko zeuden eginbeharrak eta non zeuden azpiegitura horiek? Zenbateraino heldu zitzaizen beste azpiegiturei? PIGRUGak ez du esaten derrigorrez errauste planta egin behar dela, PIGRUGak esaten du hondakinak tratatu behar direla, eta tartean azpiegiturretan bai egia da jasotzen duela errauste plantaren aukera hori, baina beste azpiegitura batzuk



Usurbilgo Udala

ere egin zitezkeen PIGRUGen barruan zeudenak, eta horiei ez zitzaien lehentasunik eman, eman zitzaion lehentasuna errauste plantari.

Gauza asko esan ditut badakit, baina oinarri-oinarrian dagoena da GHKko eta Diputazioko orduko agintariak egin zutela erabaki zentzuzko bat hartu, bestela gipuzkoarrok ordaindu beharko genuke gaindimentsionatutako azpiegitura bat gure beharrez gaindi zegoen azpiegitura bat eta, hala ere, mendeku nabarmenaz nik uste. Esan behar da baita ere fiskalak momentu batean artxibatzea eskatu zuela gai hau. Izan da inpultso politiko bat eraman duena berriz ere gaia Kontuen Epaitegira. Hori ere oso nabarmena da eta horrek ere erakusten du zein izan den gaur egungo Gipuzkoako agintarien borondatea.

Ez dakit beste zerbait gehitu nahi duzuen?

ALAITZ AIZPURUA: Bakarrik beste detaile bat gehitzearren, PIGRUGak berak azpimarratzen du zein den hondakinen trataeran hierarkia eta PIGRUGak berak aipatzen du lehenbiziko helburua dela hondakinak murriztea, berrerabilitzea, birziklatzea eta bukaeran gelditzen den hori tratatzea. Justu hemen atzetik aurrera hasi ziren eta, gainera, berriz ere hainbat eta hainbatetan entzun duguna, ez dakit bietako nork esan duen, inposaketa hitza jarri du. PIGRUGak berak, Batzar Nagusiak onartutako eta hondakinen munduan dabilen lehenengo legeetako bat da, hondakinen hierarkia nola izan behar duen ezartzen du eta hemen gaur egun ere oraindik hitz egitea hondakinak murriztea eta birziklatzea inposaketa bat dela eta errauste planta demokratikoki onartutako gauza dela, niri ez zait ulergarria inondik inora egiten.

ALKATEA: Besterik ez bada, bozkatzera pasako gara.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena azertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Apirilaren 12an epaitu zituzten Madrilgo Kontu Epaitegian Iñaki Errazkin Gipuzkoako Ingurumen diputatu ohia eta Ainhoa Intxaurrendieta GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakari ohia, 2013an Zubietako errauste-planta eraikitze kontratua bertan behera uzteagatik. Egungo GHK-ko arduradunek iazko urrian ebatzi zuten haien aurka egitea, erabaki hura desegokia izan zelakoan. 46 milioi eurorainoko zigorrak jar diezazkiekete bi auzipetuei. Kopuru horren barruan kalkulaten dute enpresa-eraikitzaileei ordaindu zitzaizkien kalte-ordainak, eta, EAJK eta PSEK bankuekin sinatutako *swap*-en ondorioz, orain arte ordaindu den dirutza. Euren ondasun pertsonalekin egin beharko diote aurre zigorrari, jakinda dirutza hori ordaintzea ezinezkoa dela. Eskatutako zigorra ezartzen badiete, bizi osorako zigorra ezarriko diete: gutxieneko soldata besterik ezingo dute jaso, eta ondasun guztiak bahituta edukiko dituzte, isuna pagatu arte. Tamalez, ez dugu ezer onik espero Madril aldetik.



Usurbilgo Udala

Erabaki hura, ordea, guztiz zuzena izan zen. Izan ere, gerora demostratuta geratu den bezala, errauste-planta horrek kalte larriak eragingo lituzke. Ez soilik herritarren osasunean edota ingurumenean, baita Gipuzkoaren ekonomian ere. Udalek bilketa eraginkorrak martxan jartzearen ondorioz, eta herritarrek hondakinak ondo bereizteko hartutako konpromisoaren ondorioz, izugarri igo zen birziklatze-tasa, eta errauste-planta erabat gaindimentsionatuta zegoen. Eraiki izan balitz, guztiz defizitarioa litzateke. Hau da, ondorio ekonomiko larriagoak eragingo zituen enpresei ordaindutako kalte-ordainak baino. Gainera, demostratuta geratu zen badaudela hondakinak kudeatzeko beste modu osasungarriagoak eta jasangarriagoak.

Adierazgarria da orain eraikitzen ari diren errauste-planta ordukoak baino txikiagoa izatea. Beraz, modu batez edo bestez, arrazoa eman diete oraingo EAJ eta PSEko buruek Iñaki eta Ainhoari. Horregatik diogu zuzen hartutako erabakia izan zela, eta, usurbildarrok poztu egin ginen horregatik. Herritarroi eman ziguten hitza bete egin zuten, hortaz.

Ezin da ahantzi, 2011ko udal eta foru hauteskundeetan, Bilduk herritarrei hitza eman ziela errauste-planta geratzeko, Diputazioara iritsiz gero. Eta, hain zuzen, besteak beste, konpromiso horrekin bozkatu gintuzten herritarrek. Herriari emandako hitza bete baino ez zuten egin Ainhoak eta Iñakik: errauste-planta gelditu zuten, aurrez batzuk dena ondo lotuta utzi nahi izan bazuten ere. Politikatik emandako hitza bete zuten. Zein sinplea eta zein arraroa, antza. Herritarren interesak erdigunean jarri zituzten, interes ekonomikoen kaltetan.


Horregatik diogu akusatuen aulkian Iñaki eta Ainhoa eserarazi badituzte ere, politika bera dela, eta politika egiteko modu bat zehatz esanda, auzibidean jarri dutena. Biek ala biek islatzen duten modua, hain zuzen ere.

Gipuzkoa berri bat egin nahi zuten (eta egin nahi dute) eta horregatik epaitu dituzte: egungo eredu neoliberala zalantzan jarri eta beste eredu bat posible dela erakutsi zutelako. Eta, ondorioz, batzuek, elite ekonomikoek nagusiki, euren bizi-osorako negozioa kolokan ikusi zuten. Eta, antza, hori ukiezina da. Horregatik, epaiketa honekin, justizia soziala bultzatzen dugunoi eta Gipuzkoa eta Euskal Herria iraunkorragoa nahi dugunoi abisu argia igorri nahi digute. Mehatxua: "Argi gure interesak ukitzen badituzue". Eta guztiz salatzen dugu hori: politikaren funtsa eta herri-erakundeon egitekoa bahitu eta bortxatu nahi dute. Hori onartezina behar luke, edozein delarik ere gure kolore politikoa.

Honengatik guztiagatik,

1) Usurbilgo udalbatzak Iñaki Errazkini eta Ainhoa Intxaurrendietari elkertasuna eta babesa adierazten dio, epaiketa erabat injustua izan dutelako. Absolutioa beste aukerarik ez dugu onartzen.

2) Usurbilgo udalbatzak Gipuzkoako Diputazioari eskatzen dio gaur egun Zubietan eraikitzen ari den errauste-planta bertan behera uzteko, eta hondakinak kudeatzeko beste modu iraunkorragoen alde egiteko.



Usurbilgo Udala

3) Usurbilgo Udalbatzak politika eta herritarrei emandako hitza betetzeko hartutako erabakien zilegatasuna aldarrikatzen du.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labakak, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

9.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez dago galdera edo eskaerarik.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:52etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.